



TAUPADA-MARKAGAILUAK BEHIN BETIKO EZARTZEARI BURUZKO INFORMAZIO-ORRIA

Zertan datza prozedura?

Ebaki txiki baten ondoren, gailu bat jarriko da larruazalaren azpian, kable bati edo biri lotuta, erritmoaren alterazioa zuzentzeko behar dituen taupada-markagailu mota zein den; eta, gailu hori bihotzeraino iritsita, motelegi badabil bizkortu egingo du.

Nola prestatu behar dut probarako?

Beharrezkoa da BARAURIK egotea proba egin baino 6 ordu lehenagotik gutxienez.

Gosariko ohiko botikak ur pixka batez har ditzakezu.

Medikazio antikoagulatzailea hartzen baduzu (Sintrom ®, warfarina, dabigatran, apixaban, erribaroxaban edo edoxaban), medikazio hori nola eman berariaz adieraziko dizute.

Diabetikoa bazara:

- Aurreko gauean ohikoa den intsulina-dosia hartu.
- Ez duzu diabetesaren aurkako pastillarik hartuko gosarian.
- Prozeduraren aurretiko INTSULINA AZKARRA ez hartu.
- Goizean intsulina basala hartzen baduzu (Levemir ®, degludek, glargina), hartu ohiko dosia PROZEDURAREN ONDOREN.

Hortzordea baduzu, harrera-solairuan ospitaleratzean kendu beharko duzu.

Non egingo didate inplantea?

5. solairuan, AUO Txagorritxuko D eremuan.

Nola egingo didate prozedura?

Proba anestesia lokala erabiliz egiten da.

Ospitaleratze-unitatean hartuko zaituen erizainak zain-bide bat jarriko dizu ezkerreko besoan, adierazitako profilaxi antibiotikoa emateko eta prozeduran zehar behar izan dezakezun beste edozein botika emateko, bai eta iododun kontrastea emateko ere, beharrezkoa bada; elektrodoak edo elektrodoek aurrera egiteko erabiliko duen edo duten zain-zitada axilarra/subklabioa/zefalikoa gidatzeko.



Ohatilan etzango zaituzte harrera-gelan emango zizuten ohe-atorra jantzita, eta beharrezkoa denean soilik biluztuko duzu zure gorputza. Prozedura osoan zure bihotzaren jardueraren erregistroa ikusteko elektrodoak jarriko dizkizute, baita tentsio arteriala hartzeko mahukatxo bat eta atzamarrean saturimetro bat ere.

Ondoren, oihal kirurgiko bat jarriko dizute zure gorputza estaltzeko, eta inplante-gunea soilik utziko dizute agerian. Bertan, anestesia lokala emango dizute ziztada egingo den eremuan, prozedura mingarria izan ez dadin.

Ebakuntzak ordu eta erdi iraungo du, gutxi gorabehera.

Zer egin behar dut probaren ondoren?

Ospitaleratuta egongo zara hurrengo 24 orduetan.

Ezingo duzu jan proba egin eta 2 ordu igaro arte.

Inplantearen lehen 24 orduak igarota kontrol-erradiografia bat egingo dizute, konplikaziorik egon ez dadin.